


URDIÑARBE

Musikaren Eguna 98



Maiatzaren 15, 16, 17

- Antolatzaile : Bil-Xokoa elkarte, 64130 Urdiñarbe, tel-fax : 0559281410 -

- Urdiñarbe : Xiberoan, Mauletik, 10 km -

Müsikaren Egüna 1998

Urdiñarbe, Maiatzaren 15, 16 eta 17an

1 - Müsikaren Egüna : Herrien arteko kürütxatzeak, jeiaren bidez

Azken urte horietan ororetan, Müsikaren Egünaren xedea izan da kältüra nortarzün berezi bat düen herrien hobeki ezagütaraztea, bereziki müsika eta kantore sailean. Holaz dütügu Urdiñarbera jinarazi Korsikatik, Kelta herrietarik bai Okzitaniatik honenbeste bat müsika joile eta kantari. Hala ere, ez dügü seküla ahatze, heben berean, Eüskal Herrian, kältüra bizidün eta aberats bat badügüla eta, eüskal müsikalari eta kantariak ere jeiaren parteliant izan dira beti.

Arren, Müsikaren Egünaren berezitarzüna da beste kältüra elibateki arrolatzea, izan ditean herri baten nortarzün berezikoak ala ez, eta gure kartielean ezagütaraztea.

Aurtenko Müsikaren Egünak ildo horren lantzen jarraikitzen dü. Aldi hontan, gure Eüskal Herriaren lehen aüzoa den Okzitaniari eta müsika bai kantore saileko haren kältür aberastarzüner interesatü gitzaie.

2 - 1998ko Müsikaren Egünaren helbürüak

Hatsarreko asmüer jarraikitzen gitzaiela erraiten ahal da, hots :

- Jente güzientako jei bat izan dadin : arren, hiru egun horietan ikusgarriak oro dohainik izanen dira, haurren begiratzeko eta inganarazteko zerbait plantatürük date eta kümitü bereziak eginik izanen dira erretretan direnak biltzen dütüen alkarteer;

- Müsika, dantza, kantüz aritzea, bai eta erakusketak nola ere gogoetaldi eta eztabadak botitzea hiru egünez. Gisa hortan, Urdiñarbe izanen da, aste ürrentze oso batez, libertitzeko, kürütxatzeko eta gogozkak egiteko günea;

- Beste herri elibatetako kältürak ezagützea eta ezagütaraztea. Aurten, Okzitania dügü kümit, bere berezitarzün güzieki, izan dadin lürraldez (Biarno, Quercy-Rouergue, Languedoc, Proventza, Italiako okzitandar herrialdeak) edo müsika motaz (ohidürazkoetarik rockeala artino).

- Züberoako honenbeste bat alkartekilan botingo lanean aritzea, hala nola Ühaitza, Haurra, Habia, Ikherzaleak, Üztaro, Aitzindariak edo Züberoako CB erabilzaleak...

3 - Aurtenko animazioak

Müsika, dantza, erakusketak, Euskal Herriko eta Okzitaniako kùltüren arteko arrolatzeak.

Gei nausia : Okzitaniako herri kùltüra.

Hiru sail berezi :

- * Hizkuntza : Maiatzaren 15ean, ostiralean
- * Herriko dantzak eta kantüak : Maiatzaren 16an, neskenegüean
- * Müsika : Maiatzaren 17an, nola ere hiru egüetan

3.1 - Hizkuntza : Maiatzaren 15ean, gaüko 8 orenetan

Ororek dakigüenez, herri baten mintzajeak dü, lehen-lehenik, kùltüraren bizitarzüna segürtatzen eta bermatzen. Bai bena, frantses erresumaren jokamoldeak galbidean eta hiltorian ere ezarri dütü gure herrietako hizkuntzak.

Gei honen üngürüan bi animazioe plantatürük dirateke :

- Bi erakusketaren agertzea

- Euskal Kultur Erakundeak moldatü düan “Euskara” izenekoa
- Aveyron departamentüko kùltür egintza egitürak moldatü düan “Okzitaniako mintzoa, mündü zabaleko hizkuntzen artean” izenekoa. Erakusketa honen moldazaleetarik bata gureki dükegü eta xehetarzünak emanen deizkü. Alkarretarik badükegü laxüki zer ikas.

Bestalde, usatü bezala ere, beste ederlan erakuslerik ere izanen dügü, hala nola eltze egileak edo arte plastikoetakoak.

- Jenteen aitzineko eztabada

Mintzageia : “gütiengoan ezarririk izan diren hizkuntzek ba ote düe gero baten esperantzarik Frantzian ?”

Aipagei honek badü egüinkotarzünik, zeren eta orai berri orano eztabadatü beita, Frantzia prest lizateanez ala ez bere Estatüan gütiengoan ezarririk izan diren hizkuntzen - gurea barne - züzenak ezagützera; bestalde, egün horietan da ere *Deiadar* kanpaina agitzen. Arren, gure xedea izan da politikari, ünibertsitari eta kùltüra sailean lanean ari diren elibaten artean gogoeta eta eztabadakatze güne bat haboro eskentzea.

Eztabada hortan parteliant dirateke :

- Nicole Péry (oranokoan segürtatzeko), hau axolatü beita, Lionel Jospin Frantziako Lehen Ministroaren manüz, herri berezietako hizkuntzez ikerraldi lan batez;
- Salles-Lousteau jauna, Biarnoko Kültür Erakundeko bürüzagia eta Frantziako Hezkuntza Nazionaleko begistazale, bereziki herri hizkuntzen erakaskuntza jarraikitzeaz axolutzen dena;
- Josune Ariztondo anderea, Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikako arduradüna;
- Jean Haritschelhar, Euskaltzaindiako bürüzagia;
- Erramun Bachoc, Euskal kultur Erakundeko bürüzagia.

Eztabada hori eüskaraz eta frantsesez eginen da eta mintzaje batetik besteala ützülpeneren berehala egiteko sistema bat muntatüren da.

3.2 Herrietako dantzak eta kantoreak : Okzitania eta Eüskal Herria gaüaldi berezia : Maiatzaren 16an, gaüko 8 orenetarik harat.

Gaüaldi hau ez date üsatü kantaldi bat, bena bai, aldiz, gaü pasa bat, dantza eta kantüz arizaleen eta ikusliarren artean arrolatze bat egiteko gisan (eta ikusliarrak ere dantzan eta kantan planta lirateke, pefosta).

Gaüaldian parteliant dirateke : Proventziako *I' Esseiro* taldeko 35 kantari eta dantzariak eta Züberoako *Aitzindariak* alkartekoak. Kantarietan, berriz, *Maddi Oihenart*, *Jean Bordachar* eta *Alain Orabe*, *Robert Larrandaburu* eta *Dominika Etxart 'Llarraki'*, *Oillarrak taldea*, *Fai - Lum* eta *Claude Marti* (Okzitania).

Ororen artean, arren, pastetx jate, tzüntzür bustatze eta giro goxo bat gozatze.

3.3 Müsika eta kantaldi - Maiatzaren 17an, igantez

3.3. 1 Betiko Müsikaren Egüna

Plantazaleer üdüri zaikü Müsikaren Egünak behar düala baratü herriko jei bat, herritar haboroxeengo baten gustüko. Oritaraz dezagün, igaran urtean, 2500 jenteren altexea bildü zela. Beraz, aurten ere, goizanko 11 orenetarik gaüko 11ak artino, badate zer ikusteko, zer entzütoko, zer libertitzeko eta zer gozatzeko, hots :

- Kontzertüak;
- Proventzako eta Züberoako dantzariak;
- Begitarte parpifiatze, haurren begiratze eta inganarazte;
- Jatera emaite zoin nahi tenoretan;
- Karriken alageratzen dültzain, txanbelari, txülülari, txarrangak;
- Dantzaldi;
- Erakusketak eta apaindüra lan bat han berean egite.

Okzitaniako kantari eta kantari taldeak :

* **Nadau (Biarno)**

Ez dü haboro balio ere nor diren erraitea, hain beitira ezagütürük eta preziatürük. Biarnoko okzitanoz kantatzen düe. Talde honek aspalditik probatü dü zahamiola bezalako müsika tresna zaharra eta oraiko gitarra elektrikoa boti ariarazten ahal direla sonü lilürazaleak egiteko. *Nadaukoak* ezagütürük dira ere alabadereko arraileriant elibat bezala.

* **Claude Marti (Languedoc)**

Okzitaniako müsikak izen bat bera behar balü gogoan etxeki, hau lizate, eskierki, *Claude Martirena*. Honek züan, orai düala jadanik 25 urte, Okzitaniako müsika eta kantoregintzaren бүрү altxatzea aküilatü. Egünko egünean, okzitanoz, frantsesez eta espainolez ari da kantan, hiru müsika joilez lagüntürük. Bere Okzitania maitea dü, prefosta, kantazen, eta bereziki Mediterraneoko alaba den Languedoc lüraldearen itxüra hanitxetako izatea, hainbeste sorterro eta odoletako jenteer batzarri egin deien lür bat beita.

* **Faï Lum (Aveyron)**

Gütixeago ezagütürük da *Faï Lum* bena egiazki merexi dü bere omena zabal dadin, testü eta müsika lantüak egiten beitütü. Agoinü handiko holako taldeek düe herriko kültüra bat bizirik etxekitzen nola ere arraberritzen. Eta ez dira sail sinplenean baratzen, zeren eta *Jean-Louis Courtial* hitz eta ahaire egileak eta *Roselyne* kantarisak, gisa hanitxetako obrak eskentzen beiteizküe : bossa nova, swing, tango, baltsa eta beste. Kantoreen hitzak zorrotz, arraileriazko edo bihotz hunkigarri dira. Okzitanoz kantatürük dira bena hatsarrean frantsesezko *sketch* delako elibat badira üsü. *Faï Lumek* haurren erezeko ere lan zinez interesgarri bat egiten dü eta pentsatürük da Müsikaren Egünealat jinen diren haur nahiantak oro tauladala igan ditean, *Faï Lumeki* batean, okzitanozko kantore bat emaiteko. Egiazki, berek hala dioenez, *Faï Lum* da 10 eta 90 urteren arteko haurrentako kantari talde bat !

* **Lou Dalfin (Italia)**

Okzitaniaren zati bat bada Italian ere eta bere 180.000 herritarrak 12 ibarretan bizi dira. Hantik jinen zaizkü, arren, *Lou Dalfin* taldeko bost müsika joileak. Ez dira abiatü berriak, jadanik 3 KD eginik beitütüe eta horietarik bata *Sustraiak* eüskal taldeareki. Talde honek, sorkuntzazko müsika lanak eta Okzitaniako herriko dantzak üztartzen dütü. Behar da ikusi ere Sergio, brenka joilea, nola zotükatzen den tauladaren gainen eta nola ere botitzen dütüan müsika tresna zahar honen eta gitarra elektrikoaren soinüak. Leheneko brenka joileak harritürük egonen lirateke...bena zinez müsika hona da. Arren, Okzitaniako rock süerte bat zaikü jinen Züberoalat; püntüratan ere ez da behar hitzordü honi hüts egin ! *Lou Dalfin*, iragan urteko *Printemps de Bourges* agerraldi ezagünean parteliant izan zen ere.

3.3.2 Musikalari eta kantariak

Euskal Herrikoak :

* **Oillarrek** : Maule, Garindaine eta üngürüko herrietako adiskide elibatek sortü züen talde hau, orai düala 5 urte. Geroztik, *Oillarrek* memento gogorrek bizitü dütü, taldearen sortzaletan ziren *Pipo eta Auguste Etchebarne* anaiak joan beitzazkü. Haier ohore egite handiena ez zena ote arra-abiatzea ? Hala egin dü *Oillarrek* eta gure xarmazale dütükegü, arren, kantari hauk : *Etienne Mirande (Garindaine)*, *Kaiet Borda*, *Régis Claverie*, *Arnaud eta Jean Laphitz (Maule)*, *Christophe Aranburu (Altzürükü)*, *Patrick Lousteau (Urdiñarbe)*, *Philippe Carricart (Berrogaine-Larüntze)*. *Müsika joileak dirateke, berriz, Cédric eta Céline Maly (Atarratze)*.

* **Aire ahizpak (Urepele)**

Amaia, Miren eta Paxkalin, Aire ahizpek, beren aitzinekoenganik ganoa üken düe sortzez. Ezi, Urepeleko hiru neskatila hauk *Xalbador* koblakari famatüaren arra-alabak dira eta, egünko egüean, fama hori ederki jarraikiarazten düan *Mixel Xalbadorren* alabak. Hiru neskatila hauek izigarriko botz ederrak dütüe eta egiaz lilüratüren gütüe herriko kantoreak bai eta Nafarroako jotak emaitez;

* **Magali Zubillaga (Aldude)**

Haurretik botz ezinago ederra züan *Magali Zubillagak* eta neskatilatzean begiratü dü. Ezagütürük izan da Kantu Xapelketetan parte hartzez eta hanitx aldiz hauk irabaztez. Urdiñarben kantatüren deikü ere *Oillarrek* taldeareki grabatü düan kantore hunkigarri bat, *Pipo eta Auguste Etchebarneren* oritzapenez.

* **Michel Arotçe (Garindaine)**

Badea orano *Michel Arotçe 'Zartantxü'* ezagützen ez düan norbait? Segürrean ez, bere botz amiagarria entzün ahal üken beitügü hainbat pastoraletan bereziki : *Abadia ürrüstoi* (1990), *de Treville* (1992), *Sabin Arana Goiri* (1996) eta lehenago ere *Pepela Mirandereki* ari zelarik kantan. Beste behin ere, gozatü ahal izanen dütügü, zoinen propiki emanen deizkün kantore-xaramelak.

* **Maddi Oihenart (Gotaine)**

Emazte botz ederrenetarik bat da, düdarik batere gabe, *Maddi Oihenart* eta berriz ere ohartü ahal izanen gira emanen deizkün herriko kantoreeki. *Michel Etchecoparrek* lagüntüren dü, beti bezain trebeki, txülülareki. Erran dezagün ere, *Maddi Oihenartek* orain berri parte hartü düala *Peio Serbielle* mauletarraren diska berrian, bai eta *Txominen Lagünak* ikusgarrian ere.

Kantarien artean eta kandalditik landa ere ez gira debeatüren, hor beitate bazterren harrotzeko : Philippe Uthuralt, André Guiesse, Beñat Etchebarne eta Beñat Etchebest züberotar txanbelariak, Bilboko trikitilariak, Tolosako gaiteroak eta Uztaritzeko txarranga.

3.3.3 Egitaraua

Lurralde bat Frantziako Hegoalde osotik, Italiako ibar, Espaniako Aran aldean hedatzen dena, 1000 urteko historia bat eta egün oroz bizitzen den hizkuntza eta kultura bat : **Okzitania**.

☞ **Ostiralea, maiatzaren 15a, 20:00etan : "Hizkuntza"**

- Erakusketaren estrenaldia :

- "Euskara", Euskal Kultur Elkarteak antolatürrik,
- "Mündüko hizkuntzak, Okzitano hizkuntza", Aveyron-eko Kontseilü Orokorrak antolatürrik.

- Eztabaida püblikoa

"Gütiengoan diren hizkuntzek badüeia gerorik Frantzian ?"
Parte hartüko dute : politika, kütür eta uniberzitate arloko ordezkariak.

☞ **Neskenegüna, maiatzaren, 16a, 20:00etarik aintzina : "Ohizko dantza eta kantü", Provence-Euskal Herri gaüaldia**

Harreman gaüaldi. Parte hartüko düe :

- *I' Eissero* (Provence-ko kantü eta dantza),
- *Aintzindariak* (Xiberoko dantzarien alkartea),
- *Maddi Oihenart, Jean Bordaxar eta Alain Orabe, Robert Larrandaburu eta Dominique LLarraki, M. Zubillaga, Oillararak taldea* (Xiberoa)
- *Fai-Lum* eta *Claude Marti* (Okzitania)

Pastetx, edangia...eta lagüntarzün !

☞ **Igantea, maiatzaren 17a, 11etarik 23etara, gelditü gabe : "Soinüa" "Müsikaren Egüna"**

Kontzertü, dantza, erakusketak, haur animazio, herri bazkari, haurzaindegi, tindatze "bizi bizian", dantzaldi...

- **Jazz, folk, swing,trad, rock...occitania :**

Nadau (Biarno), *Fai-Lum* (Quercy-Rouergue), *Claude Marti* (Languedoc),
Lou Dalfin (Italiako Okzitania)

- **Eüskal Karrika soinüak**

Gaitero, Txanbelari, Txaranga, txürülari, trikitilari
eta *Oillararak* taldea, *Aire* ahizpak, *Magali Zubillaga, Ibiliz*
Maddi Oihenart eta Michel Etchecopar, Michel Arotce.

Musikaren Eguna laguntzen dūe :

- Pirinio Atlantiko departamentūko Kontseilū Jeneralak
- Akítania Herrialdeko Kontseiluak
- Euskal Kultur Erakundeak
- Ūhaitza Zūberoako Kūltūr Etxeak